


Euskal Autonomia Erkidegoko industriak %7,7ko hazkunde nominala izan zuen 2005. urtean

Eraikuntzak, azken ekitaldietako bilakaerarekin bat eginez, %9,1eko hazkundea izan zuen.

EUSTATen datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko industri sektoreak %7,7ko hazkundea izan zuen 2005. urtean. Gehikuntza hori batez ere energia-adarretan eman zen eta, hein txikiagoan bada ere, honako sektoreetan: kautxua eta plastikoa, industria ez-metalikoa, zuraren industria eta industria kimikoa. Sektore hauek industriaren batez bestekotik (%7,7) gorako hazkundea izan zuten.

2005. urtean industriako enplegua gainbeheran hasi zen, %0,7 gutxituz. Industriako langile kopurua %2 gehitu zen 2003. urtean eta %0,9 2004. urtean; aitzitik, 2005. urtean %0,7 murriztu zen. 1994. urtean 192.274 pertsona ari ziren industri sektorean lanean; hamaika urte igaro ondoren, 2005. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan 249.696 pertsona ari ziren sektore horretan lanean, hau da, 57.422 pertsona gehiago.

Industri sektorearen bilakaera. 1997-2005. Hazkunde-tasak (%)



Iturria: Eustat

Jarraian, industri sektoreak Euskal Autonomia Erkidegoan 2005. urtean izandako bilakaeraren alderdi garrantzitsuenak azaltzen dira:

- Industriako balio erantsiaren gehikuntza (%7,7 nominala) energiaren sektoreak bultzatu zuen. Gehikuntza horrek industriako batez bestekoa gainditu zuen. Zehazki, petrolioaren birfinketaren sektorea %47,8 hazi zen eta energia elektrikoa, gasa eta urarena %22,2. Ondoren kautxu eta plastikoaren sektoreak izan zuen hazkuntza handiena (%12,7) eta bere atzetik industria ez-metalikoak (%8,9), zuraren industriak (%8,7) eta industria kimikoak (%7,9). Aipatu sektore guztiek industriako batez bestekoa gainditu zuten. Izan ere, beste sektore garrantzitsu batzuk batez besteko horren azpitik geratu ziren: metalurgia eta gai metalikoak (%5,0), makinak (%4,9) eta garraio-materiala (azken honek %-0,3ko hazkunde negatiboa izan zuen.
- Euskal Autonomia Erkidegoko industria (energia barne) Estatuko industriaren aldean (energia barne, hau ere) 3,9 hazi zen. Euskal Autonomia Erkidegoko industriak %7,7ko hazkundera izan zuen 2005. urtean, baina Estatukoak %3,8koa.
- Ustiapeneko soberakin gordina %13,3 hazi zen eta langileen kostuak %3,4.
- Energiaren, kautxu eta plastikoaren eta zuraren industriaren sektoreek gainditu dituzte ustiapeneko soberakin gordinaren industriako batez besteko hazkundeak.

Industriako aldagai nagusienak. Euskal Autonomia Erkidegoa

Uneko prezioak	Balioa: €ak, milakotan	
	2005	Δ %
Landunak	249.696	-0,7
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	15.701.676	7,7
Ustiapeneko soberakin gordina	7.100.123	13,3
Egindako inbertsioak	2.763.023	3,8
Amortizazioak	2.397.019	0,1
Negozio-zifrak	52.957.698	9,4
Bestelako sarrerak	2.681.239	13,3
Ustiapen-kontsumoak	30.474.122	12,0
Kanpo-zerbitzuak	7.083.023	6,6
Lagileria-gastuak	8.601.553	3,4
Bestelako gastuak	1.893.602	3,7
Zergen aurreko emaitzak	4.412.763	17,3
Cash-Flow-a	6.809.782	10,7

Iturria: Eustat

- 2005. urtean industri sektoreak egindako inbertsioek neurrizko bilakaera izan zuten, %3,8ko urteko hazkundearekin.
- Negozio kopurua %9,4 gehitu zen 2005. urtean, aurreko urtearen aldean betiere.
- Zerga aurreko emaitzak %17,3 gehitu ziren, energiako sektoreek eta beste adar hauek bultzatuta: kautxua eta plastikoa, zuraren industria, makinak, industria ez-metalikoa eta garraio-materiala. Aipatu adar horiek guztiek gainditu zuten industriako batez bestekoa (%17,3).

- Cash flow-ak %10,7 egin zuen gora, zerga aurreko emaitzak nabarmen egin zutelako gora (%17,3) eta amortizazioek bilakaera oso apala izan zutelako %0,1eko hazkundearekin.
- 2005. urtean okupazioa gehitu zuten sektoreak hauek izan ziren: energiako sektoreak (petrolioaren birfinketa eta energia elektrikoa, gasa eta ura), industria ez-metalikoa, kautxua eta plastikoa, elikaduraren industria eta material elektrikoa.
- 2005. urtean, industriako hazkunderik handiena Bizkaiko lurraldeak izan zuen. Guztira %10,2ko hazkundea izan zuen urte horretan, lurraldean dauden energiako sektoreei esker. Ondoren Gipuzkoak izan zuen hazkunderik handiena (%6,8) eta azkenean Arabak, bere industriak %4,4ko hazkundea izan zuelako.

Eraikuntzaren sektorea %9,1 hazi zen 2005. urtean

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntza sektoreak %9,1eko hazkunde nominala izan zuen. 2004. urtean %10,3 hazi zen, aurreko urteko ehunekora hurbilduz; aitzitik 2005. urtean ez zuen digitu biko hazkunderik ere izan.

Eraikuntzako aldagai nagusienak. Euskal Autonomia Erkidegoa

Uneko prezioak	Balioa: €ak, milakotan	
	2005	Δ %
Landunak	93.176	2,9
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	4.566.481	9,1
Ustiapeneko soberakin gordina	1.694.332	11,0
Egindako inbertsioak	437.565	0,6
Amortizazioak	200.116	-2,8
Negozio-zifrak	14.183.643	12,5
Bestelako sarrerak	1.563.781	-6,4
Ustiapen-kontsumoak	9.411.217	13,1
Kanpo-zerbitzuak	1.411.170	6,6
Lagileria-gastuak	2.872.149	8,1
Bestelako gastuak	327.459	-2,0
Zergen aurreko emaitzak	1.329.323	13,2
Cash-Flow-a	1.529.439	10,6

Iturria: Eustat

- Eraikuntzako langile kopurua %1,9 hazi zen; guztira 93.176 langile ari ziren sektore horretan lanean, hau da, 2004. urtean baino 2.400 pertsona gehiago.
- Eraikuntza sektoreak sortutako balio erantsi gordina %9,1 hazi zen 2005. urtean.
- Ustiapeneko soberakin gordina %11,0 hazi zen eta langileen kostuak %8,1.
- Guztira egindako inbertsioek hazkunde txikia izan zuten, %0,6koa.
- Negozio kopuruak %12,5eko tasa lortu zuen 2005. urtean.

- Zerga aurreko emaitzak %13,2 hazi ziren eta Cash flow-a %10,6 gehitu zen; bestalde, amortizazioak %2,8 murriztu ziren.

Eraikuntza sektoreak hazten jarraitu du, bai balio erantsiaren aldetik (%9,1) bai langile kopuruaren aldetik (%2,9); baina 2005. urtean hazkunde-erritmoek aurreko urteetan baino profil neurrizkoagoa izan zuten.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Iosune Azula

Tel:+34-945-01 75 09 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp